



# KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak gastu asko izan ditu, enpresa bat sortzeak gastu handiak edukitzen dituelako. Gasturik handiena guretzat hasierako inbertsioa izan zen.

Hasierako inbertsioa 1.500.000€ izan zen eta enpresako partaide guztiok kopuru berdina jarri genuen, hau da, 300.000€.

Hasierako inbertsio eta gastuez gain enpresa batek beste kostu batzuk ere baditu, horrela bereizten dira kostu horiek:

- Kostu finkoa: langileen soldatak, eraikuntzaren prezioa, makineria, webgunearen hostinga, garraioa...
  - Langileen soldatak: Hasiera batean 50 langile direnez, 2000-2500€-ko soldata jasoko dute, lan handia izango dutelako egiteko.
  - Eraikuntza: Enpresa, industrialde baten jarri dugunez industrialdeko pabilioi baten alokairua ordaindu behar da, hau da, 500.000€.
  - Makineria eta materialetako gastua ere handia izan da, 30.000€ ingurukoa.
  - Webgunearen hostinga: webgunean publizitatea egiteak kostu bat du eta webgunea izatearren 5€ ordainduko ditugu hilero.
  - Garraioa: Enpresak bost kamioi izango ditu edukiontzia garraiatzeko, kamioi bakoitzaren prezioa 100.000€-koa izango da. Beraz, garraioan 500.000€-ko kostua izango dugu.
- Kostu aldakorrak: telefonoak, argindarra, ura eta hornitzaileak.
- Mailegua: hileka ordainduko dugu bankuari eskatu diogun mailegua. Mailegua 3.000.000€-koa da, %6ko interesarekin.

